AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4568

AGINDUA, 2012ko irailaren 27koa, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Jabetza Erregistroetan dauden lanpostu hutsak betetzeko lehiaketaren ondorioz, Jabetzako, Merkataritzako eta Ondasun Higiezinetako Erregistratzaileak izendatzeko dena.

Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higiezinen Erregistroan hutsik dauden lanpostuak betetzeko instruitutako espedientea ikusi da. Lanpostu horietarako deia 2012ko uztailaren 3ko ebazpen batez egin zen, eta 2012ko uztailaren 16ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Horiek horrela, Autonomia Estatutuaren 12.3 artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, hau

EBAZTEN DUT:

Euskal Autonomia Erkidegoko Jabetza Erregistroko lanpostuetarako honako hau izendatzea:

Joaquín Cortés Sánchez jauna, Barakaldoko 2 zenbakiko Jabetza Erregistrorako.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 27a.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.